

EUSKAL ITSASONTZIAK HISTORIAN ZEHAR

Itsas lana eta, bereziki, arrantza izan dira Euskal Herrian, batez ere, jakina, kostaldean lehen mailako jarduerak. Arrantzaleek gizakiarentzat aurkako eta ezustekoz betetako ingurune baten lan egin behar zuten. Gaur egun badakigu Euskal Herriko itsasbazterrean historiaurreaz geroztik egiten zela arrantza. Baina XII. mendera arte ez zen arrantzalea lurraren bistatik itsas zabaleko arriskuetera urrutiratu. 1200. urtean, dagoeneko, jasota dago Euskal Herriko hegoaldeko kostan balearen arrantzan aritzen zirela. Baina balearen harrapaketak garrantzi handia izan arren gure arrantzaleak prest zeuden beren itsasbazterrean etortzen ziren espezie garrantzitsuenak harrapatzeko. Laster etorriko ziren beren itsasontzien eta tresnen poderioz, Ternuara eta Labradorreran bidaiak lehenbizi bakailao bila eta gero balea bila. Atlantikoa alderik alde zeharkatzeko, baleazaleek 200 tonatik 500 tonara bitarteko ontziak erabiltzen zituzten eta urtean 20-30 bat ontzi hain zuzen. Mendeetan zehar eta Kantauri osoan nagusi izan eta gero, XX. mendean, ikusirik Bizkaiko Golkoa ez zela aski Euskal Herriko arraste ontzientzat eta lortutako ahalmen nabarmenari esker, lan esparrua ur handietara zabaltzeko asmoa sortu zen. Hala euskal arrantzaleak arrantzatoki handiak aurkitzen eta ustiatzen aitzindari izan direla baieztatu daiteke. Eta horrela jarraitu dute beren gorabeherekin gaur arte.

Baina arrantza bizitzaz gain, euskaldunak, euren abenturarako zaletasunak bultzatuta eta izaera saiatsua eraginez, bertako mugetatik kanpo irteteko eragozpenik ez du izan. Itsa-soaren historia euskal izenez josita dago bai abenturazale eta gerlariak egindako balentriengatik, beren ekarpen geografiko, zientifiko eta praktikoengatik eta merkataritzan izan zuten garrantziagatik. Gainera ez dezagun ahaztu kortsarioak eta piratak itsasoetan zehar bizi izan duten epopeia.

Gure kostaldea era guztietako itsas kulturen elkargunea izan da menderen mendeetan. Euskal kostaldeko ontzigintzak arrantzale eta merkatarari izaten hasi zireneko garaian ditu bere hastapenak. Baina Adourren bokaleko vikingo eta normandiarren agerpenen eraginez, euskal itsasontziak antzina garatu ziren gerrako ontzidi gisa. XI. mendean ageri zaizkigu lehen kokak. Gero XV. mendean gero egindako ontziak eta galeoiak Europako beste herrialde batzuetan eraikitakoak adina badira. Ondoren, euskal ontzigintzaren industria garatu zen, XVI. mendean bere garairik oparoena izan zuelarik, harizti eta pagadien ugaritasuna, itsas tradizioa, eskulangile onak, portuak eta ekimen handiko burgesiaren presentzia bezalako faktoreen ondorioz.

Hori dena dela eta, euskaldunak, ontzi eraikitzaile gisa, gustukoak izan ohi zituzten eta euren ontzitegiek XVI. mendean Estatua eta euskal probintziak hornitu ohi zituzten. Erregeentzat, Ameriketarako, nazioarteko merkataritzarako, ehizarako eta Ternuan arrantzatzeko, bai eta Bizkaiko Golkoko kabotajerako ontziak egiten zituzten.


Itsasketaren eta itsas arkitekturaren bilakaerak XVIII. mendean itsasontzi luze eta hobeak sortu zituen, bereziki Gaztañeta mutrikuarraren eskutik eta aitzindaritzza berreskuratu zuten euskal ontzigileek.

Juan Mari Arrizabalaga




1. Baxurako arrainontzia. XX. mendekoa

Hirurogeiko hamarkadan baxurako ontzien tona kopuruaren eta potentziaren gorakada eta berrikuntza teknikoak gertatu ziren eta guztien artean arrantzaren produktzioaren gorakada ekarri zuten.



2. Txalupa handia kazan

Ekialdeko baxurako arrantzan XX. mendera arte erabili den ontzi mota nagusia. Bi mastakoa, oibalarekin apailatuta ibiltzen zen. Atunetako sasoian pertxal luzeekin kazan aritzen zen.




3. Baiaaren ebiza eta barrapaketa ternuan

XVIII. mendeko biru grabatuen arabera egindako irudikapena. Ternuan bale arrantza aurkezten da.



4. Masteriak

Korsarien abordajea? Itsasoaren maitaleen arteko duelua? Ezpata-dantza belikoa? Ala bere kuberta-azpira baleak noiz ekarriko zain, elkarrekin berriketan ari diren bale ontzien masteriak?




5. Nuestra Señora del Coro fragata

Real Compañía Guipuzcoana de Caracas (1728an eraikia) izenekoak kortsaritzarako armaz hornitutako fragata. Honela, merkataritza alorreko jarduerak betetzeaz gain, kortsaritzan jardutea ere abalbidetzen zien.




6. Falua eta eskola-ontzia

Bilboko Kontsuladuko falua, itsas agintariak garraiatzeko karrozadun ontzia eta "Ama Begoñakoa" fragata-eskola bikaina, Sota eta Aznarren ontzi-jabetzarena, 1902an eraikia eta gero mundu osoa zebarkatu zuena.




7. Blas de Lezoren fragata

Blas de Lezoren fragata Stanhope atoian daramala, itsas garaipen gogoangarri baten ondoren.




8. Merkantzi ontzia, Donostia

Merkantzi ontzia, Donostiaren Erdi Aroko zigilua abiapuntu barturik egina (Diseinugilea: Miguel Laburu) XV. mende aurrekoa.




9. Trainerua

Zein lehenago iritsi itsasontzira Pasaiaiko portura atoian eramateko, zein lehenago iritsi portura arraina saltzera, zein lehenago iritsi... Mendeetako laneko lebia kirolik ikusgarrietako bat biburtuta.




10. "Mamelena" arraste baporea

1909an Donostian eratutako Mamelena konpainiari zegokion lurrin arraste ontzia, bikotean aritzeko apailatua, Espainiako aurrenekoa hain zuzen.



11. Merkantzi ontzia. XV. mendekoa

XV. eta batez ere XVI. eta XVII. mendeetan zehar Donostiako hondartzak eta Pasaiaiko itsasertzak ontzigintzaren gunerik bizenetakoak izan ziren.



12. Arrainontzia eta belaontzia

Zer esaten ote dio gure belaontzi dotoreak arrainontzi ganoratsuari? Ze izkirimirietaz ari ote da jardunean gure ontzi airosoa? Ze irudi ameslari ikusten ote ditu bere lagunaren uretan arrainontzi kezkatia?